


Mutil gazteen erdiek astean hiru aldiz edo gehiagotan egiten dute kirola

Nesken kasuan heren batek baino gutxiagok

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik lauk kirol jarduera erregularra egiten dute, hau da, astean hiru aldiz edo gehiagotan. Hau datu orokorra bada ere, sexuaren arabera alde handiak agertzen dira. Gizon gazteen erdiek (% 50,2) kirola egiteko aztura daukate, neska gazteen artean, aldiz, % 29,6 baino ez.

AISIALDIA, KULTURA ETA KIROLAREN OINARRIZKO DATUAK

Kirol-jarduera erregularra sexuaren arabera (Ehunekoa, 2012)



DEFINIZIOA: Astean 3 aldiz edo gehiagotan kirola egiten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.


ITURRIA: Gazteen Euskal Behatokia, Euskal Gazteak Seriea.

Adinaren arabera ere alde esanguratsuak daude: adinean gora egin ahala, gutxiago baitira kirola modu erregularrean egiten dutenak.

AISIALDIA, KULTURA ETA KIROLAREN OINARRIZKO DATUAK



Kirol-jarduera erregularra adin-tartearen arabera (Ehunekoa, 2012)



DEFINIZIOA: Astean 3 aldiz edo gehiagotan kirola egiten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.


ITURRIA: Gazteen Euskal Behatokia, Euskal Gazteak Seriea.

Baina, zeintzuk dira gazteek gehien praktikatzen dituzten kirolak?

Futbola da, zalantzarik gabe, gazte gehienek egiten duten kirola (% 27). Gutxiago dira, diotenez, korrika egitera irteten direnak (% 14), igeriketa egiten dutenak (% 13), muskulazioan (% 12) edo txirrindularitzan aritzen direnak (% 11). Gainerako kirolak gazteen % 10ek baino gutxiagok aipatzen dituzte.

EAEko gazteek gehien praktikatzen dituzten kirolak aztertzeko garaian, ezinbestekoa da, berriro ere, sexua aintzat hartzea. Espero bezala, futbola da nesken eta mutilen artean alderik handienak erakusten dituen kirola: nesken % 6k praktikatzen dute eta mutilen % 44k. Izan ere, futbola da kirol nagusia mutilengan, eta hamargarrena nesken artean.

Ez dago futbolarik mutilak elkartzen dituen moduan neskak batuko dituen kirol-diziplinari. Emakumeek gehien egiten duten kirola korrika egitea da, % 18k aipatua, eta jarraian ibiltzea (% 16), igeri egitea (% 16) eta aerobika edo antzekoak daude (% 15). Horiek dira nesken lau kirol-modalitate nagusienak, eta, gainera, horietan neskak gehiago aritzen dira mutilak baino.



Kirol-jarduerari buruzko datuak [Gazteen Adierazleak 2013](#) ikerketan kontsulta daitezke, “[Aisia, kultura eta kirola](#)” atalean, hain zuzen ere.

Gazteen Euskal Behatokiak eginiko ikerketa zabal honek gazteriari buruzko 111 adierazle biltzen ditu: batzuk Behatokiak berak egindako azterlanetatik datoz; beste batzuk iturri estatistiko ofizialetatik. Guztia batuz gazteen egoerari buruzko panoramika eskeintzen du, eta Euskadiko biztanleria osoarekin alderatzeaz gain, Espainia eta Europar Batasuneko gazteen egoerarekin ere konparatzen ditu.

Bertan agertzen den informazioa lau formatu ezberdinetan aurkezten da:

- [Laburpen exekutiboa](#), aztertutako adierazle guztien informazioa laburbiltzen duen testu laburra.
- [Gazteen Adierazleen Panela](#), ikerketaosatzen duten 111 adierazleen informazioa biltzen duen laburpen-taula.
- [Adierazleen fitxak](#), oinarritzko 64 adierazleei buruzko informazioa.
- [Datu base interaktiboa](#). Grafikoak eta mapa interaktiboak egiteko aukera ematen du eboluzioa aztertzeko, alderaketak egiteko eta 111 adierazleak aldagai ezberdinen arabera aztertu ahal izateko.

Jarrai gaitzazu gizarte sareetan!